##### IV.2. JARDUKETA SISTEMA Izaera loteslea ez duena

Konpentsazioa, hala badagokio, kooperazioa

##### IV.3. ANTOLAMENDUZ KANPOKO ERAIKIN ETA INSTALAZIOAK

Energia elektrikoaren hornidurarako transformadorea.  
AREAn lehendik dauden txabolak.  
Erreferentzia planoan adierazitako eraikuntza.

##### IV.4. NAHITAEZKO LAGAPENAK

Bideak: Hiriko errepide sarea

Espazio Libreak: Parkeak eta lorategiak

ERREFERENTZIA PLANOAK:  
C DOKUMENTUA: 28 Area: EGIBURU – Burutzapena

28/IV





39 SEKTOREA:

LARTZABAL/ARRAGUA

I. MUGAKETA m<sup>2</sup>

I.1. Azalera: .....55.876

II. HIRIGINTZA ERREGIMEN OROKORRA

II.1. Lurzoruaren Sailkapena: ..... URBANIZAGARRIA

II.2. *Kalifikazio Orokorra:* *m<sup>2</sup>*

Bizileku Erabilerarako Zona: Eraikuntza Irekia ..... BEZ/3 .....32.556  
Komunikazioen Sist. Orok.: Trenbide sistema ..... KSO/1 .....2.605  
Komunikazioen Sist. Orok.: Hiriarteko errepidea ..... KSO/2.1 .....10.368  
Espazio Libreen Sist. Orok.: Parkeak eta lorategiak ..... ELSO/1 ..... 4.808  
Ibai-ubideen Sist. Orok.: Ibai-ubideak ..... IUSO/1 ..... 5.539

II.3. Hirigintza Esku Hartzerako Erregimena:

Sektore bat da. Plan Partzial bat eta Urbanizazio Proiektu bat idaztea exijitzen da.

II.4. Aurreko Planeamenduko arauetara jotzea:

- Arau Subsidiarioen 7. aldaketa ..... BBO: 99.03.30
- Arau Subsidiarioen 17. aldaketa ..... BBO: 02.07.03

Horren zehaztapenak mantendu egiten dira, Plan Orokor honetan ezarritakoei kontra egiten ez dietenak izan ezik.

Eremua Komunikazioen Sistema Orokorraren mugakidea da: Trenbidea Lasarte-Hendaia lineari dagokiona, zeinarentzat bikoitze edota lurperatzea aurreikusita dagoen. Beraz, Lehorreko Garraioen Antolamendurako Legea aplikatu behar da.

Eremua Komunikazioen Sistema Orokorraren mugakidea da: Hiriarteko Errepidea, eta beraz, Errepideen Foru Araua aplikatu behar da.

Eremua Oartzun ibaiaren mugakidea da. beraz, Uraren Legearen zehaztapenak aplikatu behar dira.



39 SEKTOREA:

LARTZABAL/ARRAGUA

## II.5. Jarduketa Unitateak

Sektorea Jarduketa Unitate bakar batez osaturik dago.

## III. ANTOLAMENDU XEHATUA

### III.1. Irizpide eta helburuak:

- i. Sektorearen muga aldatzea eta 62. Sektorea: Errenteria/Oiartzungo Poligonoa, bereiztea.
- ii. Indarrean dagoen hirigintza-erregimenaren aldaketa partziala, hirugarren sektoreko erabilerari dagokionez.
- iii. 40. Sektorearen (Talaia, industrial) deskalkifikazioa.
- iv. Komunikazioen Sistema Orokorra: eremuan "Hegoaldeko Bidea" izeneko ezartzea eta Donostiako Bigarren Ingurabideari egokitzea.
- v. Babes ofizialeko etxebizitzetarako eta etxebizitza libreetarako jarduketa baten garapena (17/1994 Legearen 2. artikulua eta 142/1997 Dekretuaren 3. artikulua).
- vi. Hirugarren sektoreko jarduketa bat garatzea.
- vii. ET/FV-ko trenbide-trazaren zabalkuntza ahalbidetzea.
- viii. Espazio Libreen Sistemak barne hartzen duen azaleraren zabalkuntza -Talaia Parkea- (Lurzoruaren Legearen 49.2 artikulua), Sektoreko toki-sistemaren zuzkidura gisa exiji daitekeenaz gain.
- ix. Oinezkoen eta bizikleten sarearen ebazpena eremuan, Arditurriko meatze-trenaren antzinako traza ahal den neurrian aprobetxatuta.
- x. Ibaiaren bi ertzen tratamendua, oinezkoentzako pasabide baten eraikuntza barne hartuta.

### III.2. Eraikuntza Erregimena

- Lerrokadurak: ..... Plan Partzialean finkatuko dira
- Gehieneko perfila: ..... SO/BO/5GO  
ES/B/Aldagarria:3/4/5GO



39. SEKTOREA:

LARTZABAL/ARRAGUA

<u>Hirigintza-aprobetxamendua</u>	<u>m<sup>2</sup>(s) eraikia</u>
Bizilekua (BOE) .....	15.639
Bizilekua (Sustapen librea) .....	8.421
Garajea eta eranskinak (BOE) .....	7.860
Garajea eta eranskinak (sustapen librea) .....	4.232
Merkataritza .....	450
Hirugarren Sektorea .....	<u>2.000</u>
Guztira .....	38.602

<u>Zuzkidura-aprobetxamendua</u>	
Zuzkidura-azalera .....	250

<u>Aprobetxamendu homogenotua</u>	<u>m<sup>2</sup>(s)k</u>
Bizilekua (BOE) .....	15.639,00
Bizilekua (Sustapen librea) .....	25.263,00
Garajea eta eranskinak (BOE) .....	2.751,00
Garajea eta eranskinak (sustapen librea) .....	1.904,40
Merkataritza .....	522,00
Hirugarren Sektorea .....	<u>1.800,00</u>
Guztira .....	47.879,40

Dentsitatea ..... 51,35 Etx./Ha

Sektorea Banaketa Area da ..... BA/UB05  
Ereduzko aprobetxamendua ..... 0,86 m<sup>2</sup>(s)k/m<sup>2</sup>

III.3. Erabilera Erregimena:

<u>Etxebizitzak</u>	<u>unitateak</u>
Babes ofizialeko etxebizitzak (65,68%) .....	134
Sustapen libreko etxebizitzak (34,32%) .....	<u>70</u>
Guztira .....	204

SO/ES erabilera ..... Garajeak eta eranskinak  
BO erabilera ..... Merkatartitza  
E erabilera ..... Bizilekua  
nGO erabilera ..... Bizilekua

Hirugarren sektoreko lurzatia  
SO erabilera ..... Garajeak eta eranskinak  
E/nGO erabilera ..... Hirugarren sektoreko erabilera



39. SEKTOREA:

LARTZABAL/ARRAGUA

Bigarren Sektorereko Erabilera: Industriala eta ibilgailu-konponketarako debekatzen dira eremuan.

III.4. Zehaztapen Lotesleak:

Errepideen Foru Arauan, Uraren Legean eta Lehorreko Garraioen Antolamendurako Legean adierazitakoak.

Teknikoki justifikatuta, Plan Partzialean etxebizitza-kopurua handitu ahal izango da, aprobetxamenduari eutsiz, aurreko AASSetako 4.1.05.9 artikuluan ezarritakoaren arabera, edozein kasutan 17/1994 Legearen 2. artikulua aplikatzeko delarik.

*IV. BURUTZAPENA*

IV.1. Hirigintza Jarduketarako Erregimena: ..... Sektorrea

IV.2. Jarduketa Sistema: ..... Konpentsazioa,  
Plan Partzialean finkatuko dena  
Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuarekin 2002ko irailaren 30ean Hegoaldeko Bidea garatzeko izenpetutako Hitzarmena kontuan hartu beharko da.

Errenteriako Udalak AES 39 eremua desjabetu ahal izango du 37. Sektorreak 39. Sektorerekin duen bide-mendekotasuna ebazteko (barne hartzen duen hiri-banaketako tarteunea burutuz), eremu honetako lurzoruak planeamenduaren ondoriozko etekinak eta kargak berdinduz banatzeko Sektorerearen garapenean erabat parte hartzearen kaltetan izan gabe eta, halaber, burutzen diren bideko obrak lurzoru horri egotz dakizkiokeen hirigintza-karga ordaindutat hartzearen kaltetan izan gabe. Errenteriako Udalak, desjabetze horren eta, beraz, lurzoruaren gaineko eskubide eta betebeharren onuradun, 37. Sektorereko Konpentsazio Batzordea izendatu ahal izango du, bide-tarteune horren burutzapenez arduratutako hirigintza-erakundea baita. Entitate hau, nolana ere, behartuta egongo da Udalak egiten dion esleipena eta horrek lurzoru eskuratzeko kostuen eta bidearen burutzapenaren ondoriozko kostuen ordainketari dagokionez dakartzan ondorioak onartzera.

IV.3. Antolamenduz kanpoko eraikin eta instalazioak:

- Lartzabalgo futbol-zelaia
- Aireko Linea Elektrikoak



39. SEKTOREA:

LARTZABAL/ARRAGUA

IV.4. Nahitaezko Lagapenak:

Urbanizazio-kargatik aske dagoen irabazteko aprobetxamenduaren %10 (11/1998 Legearen artikulua bakarria).

Komunikazioen Sistema Orokorrari lotutako lurzoru guztia.

Espazio Libreen Sistema Orokorrari lotutako lurzoru guztia.

Plan Partzialean herri jabari eta erabilerako gisa definitzen den lurzoru guztia.

2001eko urriaren 11an sinatutako Hirigintza Hitzarmenean ezarritakoak.



### 3. HAPOren 1. ALDAKETARAKO JUSTIFIKAZIOA, EGOKITASUNA ETA AUKERA

Indarrean dagoen Plan Orokorraren C Dokumentuko (Hirigintza Arauak) 1.1.06 artikulua (Plan Orokorraren Aldaketa) honela dio, hitzez hitz, 1 atalean:

*"Plan Orokorraren aldaketatzat hartuko da Plana osatzen duten elementuei, ondorengo baldintzetan, egindako edozein aldaketa edo eransketa: hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera, Planaren berrikusketa eragiten ez badu eta Plan Orokorraren osotasunean eraginik ez badu. Aldaketa horiek, era puntual eta isolatuan baino, ez dutelako eraginik ez lurraldearen egitura orokor eta organikoan, ezta lurzoruaen kalifikazioan ere."*

HAPOren 1. aldaketa idazteko justifikazioa, interes orokorreko helburu eta zergatiak lortzean datza; hala nola, hirigintza erabileren eta aprobetxamenduen definizioa berriz aztertzea. Era horretan ondorengo hauek ahalbidetuko baitira: eraikin batek duen hirugarren sektoreko erabilera, bizileku erabilerara aldatzea (14 Area: Erdigunea AREARI dagokion aldaketa); etxebizitzaren eskaeraren araberrako eraikuntza eta hirigintza logikari erantzungo dion hirigintza aprobetxamendua areagotzea (39 Sektorea: Lartzabal/Arragua AREARI dagokion aldaketa); industria eremu bat garatzea eta eraberritzea ahalbidetuko dituen industria aprobetxamendua areagotzea (28 Area: Egiburu AREARI dagokion aldaketa); Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak ezarritako eskakizunekin bat etortzeko, gizarte ekipamendu baten aprobetxamendua areagotzea (22 Area: Agustinak AREARI dagokion aldaketa); eta inguru horretako etxebizitzaren eskaerari erantzuteko, eremu bat bizileku erabilerarako birkalifikatzea (05 Area: Basanoaga/Sorgintxulo AREARI dagokion aldaketa).

HAPOren 1. aldaketa idazteko aukera, ondorengo ziurtatzeko beharrez datza: behin betiko onespena eman ondoren, eta ahalik eta eperik laburrenean indarrean jarriko dela. Alderdi hau puntuala denez, HAPOren berrikusketari itxaron gabe, hori orain gutxi onartu delako eta ez zuelako kontuan izan izaera puntualeko horrelako faktorerik.

Geroago egingo den dokumentu honen garapenean, era zabalago eta zehaztuago batean gauzatuko dira eragindako eremuei buruzko HAPOren aldaketa bakoitzaren justifikazioa, egokitasuna eta aukera.



#### 4. 05 AREA: BASANOAGA/SORGINTXULO AREARI DAGOKION ALDAKETA PUNTUALA.

##### 4.1. Aurrekariak.

HAPOn definiturik dago 05 AREA: BASANOAGA/SORGINTXULO izeneko area. Area hori osorik esku hartze unitate bakarra zen. HAPOk ahalbidetzen dituen jarduketan artean aurkitzen da Udal Igerilekuen eta Beraungo Osasun Zentroen mugakidea den eremu bat. Eremu hori HAPOn Komunikazioen Sistema Orokor gisa kalifikaturik dago eta horrek lurrazpiko aparkaleku bat eraikitzeke aukera ematen du.

##### 4.2. Aldaketaren Xedea.

Eremua garatzeko aukera aztertu ondoren, bertan bizilekurako garapen berria kokatzeko aukera ikusi da, alderdi horretan dagoen etxebizitzaren eskaera handiari HAPOk ematen dion erantzuna handituko lukeena..

Horretarako, aldaketa puntual honek esku hartze area berri bat sortu du 05 AREA: Basanoaga/Sorgintxulo eremuaren barruan, *05/01 EU "Galtzaraborda etorbidea 65B"* izeneko eta bere baitan sustapen libreko hogeit hamar etxebizitza eraikitzeke aukera ematen duena.

Sabai eraikigarria mantenduta, dentsitatea 20 etxebizitzatan handitzeak, neurri osagarri gisa, exijitzen du Espazio Libreterako lursail bat erabiltzea, gutxienez 360 m<sup>2</sup> -koa(18 m<sup>2</sup> x 20). Xedapen hori betetzeko, aurrekusi da Espazio Libreterako Sistema Orokor gisa kalifikaturiko 400 m<sup>2</sup> -ko azalera, 05/01 EU unitatearen lursailetan eta eremua garatutakoan laga beharko direnak.

##### 4.3. Justifikazioa eta Egokitasuna.

Aldaketa honen egokitasuna, etxebizitza berrietako higiezinaren parkea handitzean datza, jadanik garaturik dagoenez, horrelako etxebizitzarik ez duen eremu finkatu batean. Egungo HAPOk lurrazpiko aparkalekua egitea ahalbidetzen du, baina eremuari buruzko azterketa xehatuago batek agerian utzi du garapena sestrapean ez ezik, sestra gainean ere gauza daitekeela, alderdi horretan etxebizitzak garatzeko aukera emanez. Betiere, etxebizitza garapen berri horrek ez badiu inolako inpakturik eragiten eremuari, ez begi-inpakturik ezta eraikuntza dentsitatean ere.

Aldaketa horiek, 05 AREA: Basanoaga/Sorgintxulo eremuaren Hirigintza Arau Partikular berrian islatuko dira. Arau horrek ordezkaturiko du C: Hirigintza Arauak dokumentuko Zazpigarren Titulua: Area eta Sektoreetako Hirigintza Arau Partikularrak atalekoa, area eta sektoreei dagokien hirigintza erregulazioa arautzen duen araua.



5. 07 AREA: ALABERGA AREARI DAGOKION ALDAKETA PUNTUALA.

**5.1. Aurrekariak.**

HAPOn definiturik dago ondorengo AREA: 07 AREA: ALABERGA. Area hori hiru esku hartze unitatez osaturik dago: 07/01 EU: Aiako Harria kalea, 07/02 EU: Alabergako Ibarra eta 07/03 EU: Alaberga, 1-6ko garajea.  
Akats bat antzeman da 07/02 EU: Alabergako Ibarra unitateari dagokion Arau Partikularrean.

**5.2. Aldaketaren Xedea.**

Aldaketa honen xedea da, dokumentu honen bitartez, indarrean dagoen HAPOn aurkitutako akatsa zuzentzea.

Ildo horretatik, 07/02 EU: Alabergako Ibarra unitateari dagokion Arau Partikularrean, zera dioenean:

Bizileku erabilerarako lurzatia: Eraikuntza irekia	3.425 m <sup>2</sup>
Bizileku erabilerarako lurzatia: Eraikuntza bakana	6.495 m <sup>2</sup>
Guztira:	9.920 m <sup>2</sup>

Zera esan behar du:

Bizileku erabilerarako lurzatia: Eraikuntza irekia	7.181 m <sup>2</sup>
Bizileku erabilerarako lurzatia: Eraikuntza bakana	2.739 m <sup>2</sup>
Guztira:	9.920 m <sup>2</sup>

**5.3. Justifikazioa eta Egokitasuna.**

Aldaketa honen egokitasuna, dagoen akats materiala zuzentzean datza, HAPOn informazio grafikoa eta idatzizkoa bat etor daitezen.

Aldaketa horiek, 07 AREA: Alaberga eremuaren Hirigintza Arau Partikular berrian islatuko dira. Arau horrek ordezkaturiko du C: Hirigintza Arauak dokumentuko Zazpigarren Titulua: Area eta Sektoreetako Hirigintza Arau Partikularrak atalekoa, area eta sektoreei dagokien hirigintza erregulazioa arautzen duen araua.



6. 14 AREA: ERDIGUNEA AREARI DAGOKION ALDAKETA PUNTUALA.

**6.1. Aurrekariak.**

Errenteriako Arau Subsidiario zaharrak garatzean eraikin bat jaso zen garai batean Liho Fabrika zegoen orubean. Horren ondorioz, gaur egun Santa Klara kalea, 5, 7, 9, 11, 13 eta 15 zenbakiak hartzen dituen eraikina "Liho" eraikina izenez ezagutzen da. Eraikin horretan, erdigunean, 9 zenbakian baimendutako erabilera hirugarren sektorekoa zen, erdiko nukleoa bulego erabilerarako izango zela uste baitzen.

Geroago HAPOk ahalbidetu zuen hiru solairuek, hirugarren sektoreko erabileraz gain, bizileku erabilera izatea, solairuko gehienez etxebizitza bakarraren baldintzapean.

**6.2. Aldaketaren Xedea.**

14 AREA: Erdigune eremuaren inguruan proposatzen den aldaketa, eremu horri dagokion arau partikularren alderdi puntual bati buruzkoa da. Aldaketak eragina du Santa Klara kaleko 9 zenbakian dagoen eraikinean. Eraikin horretan Arau Subsidiario zaharrek hirugarren sektoreko erabilerarako hainbat solairu aurreikusten zituzten eta HAPOk hiru solairuak erabiltzea ahalbidetzen du bizileku erabilerarako, hirugarren sektoreko erabilerarako erabiltzeaz gain. Hala eta guztiz ere, eta etxebizitza txikiagoa eskatzen dutenen kopurua gero eta handiagoa dela kontuan harturik, solairuko etxebizitza bakar baten ordez, bi etxebizitza egiteko asmoa dago.

Egungo Hirigintza Arauak honela dio *III.1 Antolamendu Xehatua, Irizpideak eta Helburuak* atalean:

*"xxi. Santa Klara 9ko eraikina*

*Hiru goi-oinak erabil daitezke, hirugarren sektoreko erabileraz gain, bizileku-erabilera gisa, eta etxebizitza bat oina bakoitzean, egungo komunikazio-gune bertikala mantenduz eta nahikoa dela onartuz."*

Eta, horren ordez zera esan behar du:

*"xxi. Santa Klara 9ko eraikina*

*Hiru goi-oinak erabil daitezke, hirugarren sektoreko erabileraz gain, bizileku-erabilera gisa, egungo komunikazio-gune bertikala mantenduz eta nahikoa dela onartuz."*

HAPOren aldaketa honek ez dio eragiten lurraldearen egitura orokor eta organikoari, ezta lurzoruaren sailkapenari ere. Beraz, Plan Orokorraren aldaketa baten bidez egin daiteke eta ez dago horren berrikuspena egin beharrik.

HAPOren Aldaketa puntual honek etxebizitza kopurua handitzea dakar, hain zuzen ere, kopurua hiru etxebizitzatan handitzea. Horrenbestez, eta indarrean dagoen legediaren irizpideei jarraiki, espazio libreak (ELSO) ere handitu beharko dira ondorengo azaleran: 18m<sup>2</sup>/etxebizitza.

Handitze hori ahal den neurrian etxebizitza kopurua handitzen den eremu berean eman behar denez, eremua aztertu ostean ikusi da hori *EU. Tomas Lopez kaleko Aparkalekua* esku hartze unitatean eman daitekeela. Esku hartze unitate horren kalifikazio orokorra BEZ/3 motatakoa da, eraikuntza irekia tipologiari dagokiona. Dena den, eraikuntza erregimenak ez



---

du eraikinik ezartzen unitate horretan. Hori dela eta, aldaketa honetan unitate horren zati bat (125m<sup>2</sup>) ELSO moduan mugatuko litzateke.

### **6.3. Justifikazioa eta Egokitasuna.**

---

Aldaketa honen egokitasuna, eraikuntza errealtatea hirigintza errealtateari egokitzean datza, gaur egun Santa Klara kaleko 9 zenbakian solairuko bi lokal baitaude eta indarrean dagoen HAPOk etxebizitza izateko aukera horietako bati baino ez dio ematen eta, ondorioz, solairu bakoitzean nahastu egingo lirateke hirugarren sektoreko erabilera eta bizileku erabilera. Solairuko etxebizitza bakarra eginez gero, horrek ez lioke erantzunik egungo etxebizitza eskaerari, gero eta etxebizitza txikiagoak egiteko eskariari alegia. Horrekin batera, interes orokorreko irizpide eta zergatiak lortuko lirateke, hala nola, higiezinen merkatuari hiru etxebizitza berri eranstea 14 AREA: Erdigunea eremuan. Hain zuzen ere, etxebizitza berriak eskuratzeko zailtasun handia eta sekulako eskaria duen eremu horretan.

Aldaketa horiek, 14 AREA: Erdigunea eremuaren Hirigintza Arau Partikular berrian islatuko dira. Arau horrek ordezkaturiko du C: Hirigintza Arauak dokumentuko Zazpigarren Titulua: Area eta Sektoreetako Hirigintza Arau Partikularrak ataleko araua, area eta sektoreei dagokien hirigintza erregulazioa arautzen duena.



7. 21 AREA: LARTZABAL AREARI DAGOKION ALDAKETA PUNTUALA.

**7.1. Aurrekariak.**

HAPOn definiturik dago 22 AREA: AGUSTINAK izeneko area. Horren Arau Partikularrean ondorengoa adierazi da:

III.3 Erabilera Erregimena

Igogailurik ez duten eraikinetan, eta barrualdean jartzea teknikoki ezinezkoa denean, eraikinaren lerrokaduratik kanpo jarri ahalko da. Beti ere kanpoko oinezkoen igarotzea oztopatzen ez badu. Horretarako, Udalak baimen egokia emango du.

**7.2. Aldaketaren Xedea.**

Aldaketa honen xedea da adieraztea egiaztatu dela aurreko atalean adierazitako xedapena 21 Area: Lartzabal eremura zabal daitekeela. Horrela, aukera egongo litzateke Irigarritasunaren inguruan indarrean dagoen legeria betetzeko. Hori dela eta, arau partikularrean zera dioenean:

III.3. Erabilera Erregimena:

Bigarren Sektoreko Erabilera (Industria) eta ibilgailu konponketa debekaturik daude behe oinetan (BO).

Zera esan beharko du:

III.3. Erabilera Erregimena:

Bigarren Sektoreko Erabilera (Industria) eta ibilgailu konponketa debekaturik daude behe oinetan (BO).

Igogailurik ez duten eraikinetan, eta barrualdean jartzea teknikoki ezinezkoa denean, eraikinaren lerrokaduratik kanpo jarri ahalko da. Beti ere kanpoko oinezkoen igarotzea oztopatzen ez badu. Horretarako, Udalak baimen egokia emango du.

**7.3. Justifikazioa eta Egokitasuna.**

Aldaketa honen egokitasuna, irigarritasunaren inguruan indarrean dagoen legeria betetzeko aukera ematean datza.

Aldaketa horiek, 21 AREA: Lartzabal eremuaren Hirigintza Arau Partikular berrian islatuko dira. Arau horrek ordezkaturiko du C: Hirigintza Arauak dokumentuko Zazpigarren Titulua: Area eta Sektoreetako Hirigintza Arau Partikularrak ataleko araua, area eta sektoreei dagokien hirigintza erregulazioa arautzen duena.



8. 22 AREA: AGUSTINAK AREARI DAGOKION ALDAKETA PUNTUALA.

**8.1. Aurrekariak.**

HAPOn definiturik dago 22 AREA: AGUSTINAK izeneko area.

AREAK, eremu orokorraz gain, besteak beste, ondorengo unitatea hartzen du: "22/05 EU: 3/2 EKS Ekipamendu Lurzatia". Unitate horrek honako ezaugarri hauek ditu.

Lurzoruaren Sailkapena	HIRI-LURZORUA
Kalifikazio Orokorra	EKSO/3
Azalera	2.128 m <sup>2</sup>

Irizpide eta Helburuak: "Ekipamendu Komunitarioa: Asistentziala eta bestelako zerbitzuak" programa onartzeko gai den eremu bat zehaztea. Plan Berezia eta Urbanizazio Obren Proiektua beharrezkoak dira. Barne Erreformarako Area da.

Eraikuntza Erregimena:

Azalera	2.128 m <sup>2</sup>
Lerokadurak	Plan Berezian ezarriko dira
Gehieneko perfila	SO/BO/3GO
Aprobetxamendua	2.437 m <sup>2</sup> (s) eraikiak
Banaketa AREA	BA/HL28
Batez besteko aprobetx.	1,14 m <sup>2</sup> (s)/ m <sup>2</sup>

Erabilera Erregimena

Ekipamendu komunitarioa: asistentzia eta bestelako zerbitzuak, nagusiki.

Gaur egun, indarrean dagoen HAPOn arauak garatzeko badago "22 Area: Agustinak eremuko 22/05 EU: 3/2 EKS Ekipamendu Lurzatia unitatearen Plan Berezia". "Lourdes Txiki S.L." enpresak sustatutako espediente horri, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Departamentuak behin betiko onspena eman zion, 2004ko irailaren 21ean Diputatuen Kontseiluak hartutako Erabakiaren bitartez eta 2004ko ekainaren 25ean Udaltzaren behin-behineko onartutako dokumentuaren arabera.

**8.2. Aldaketaren Xedea.**

2004 urtean zehar, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak "Agustinak" eraikinean esku hartzeko proposamen desberdinak aztertu ditu. "Lourdes Txiki S.L." enpresak eraikin horretan gerontologia zentro bat martxan jartzea iragarri du, egoiliarrentzat 100 plaza eta eguneko zentroko 30 plaza inguru izango dituen, Departamentu horrek Oarsoaldea eskualdean antzeman dituen beharrek bat eginez.

Proposamen horiei dagokienez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Departamentuak beharrezkotzat jotzen dituen azalera-plaza moduluak kontuan harturik (41/1998 Dekretua, martxoaren 10<sup>a</sup>, adintsuentzako etxeetako gizarte zerbitzuei buruzko dekretuan ezarritako gutxienezkoak betetzeko ez ezik, horren erreferentziazko eredurak



egokitzeko ere), entitate sustatzaileak proposatutako eraikinaren eraikuntza-azalera handitzea, 2.400 m<sup>2</sup> -tik 3.000 m<sup>2</sup>-ra.

Entitate sustatzaileak aurkeztutako proposamena bat dator indarrean dauden hirigintza arauak ezarritako gehieneko eraikigarritasunarekin. Hori dela eta, xedatutako gutxienekoak betetzeko aldatu egin beharko da, eraikigarritasuna 600 m<sup>2</sup>-tan handituta, 2.400 m<sup>2</sup> -tik 3.000 m<sup>2</sup>-ra. Horretarako beharrezkoa izango da HAPOn aldaketa puntual bat egitea.

### **8.3. Justifikazioa eta Egokitasuna.**

Aldaketa honen egokitasuna honako honetan datza: indarrean dauden hirigintza arauetako eraikuntza erregimenean ezarritako aprobetxamendua egokitzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak beharrezkotzat jotzen dituen azalera-plaza moduluetan xedatutako asistentzia programari.

Erabaki da Interes orokorreko helburu eta zergatiak lortuko direla, hala nola, udalerrian asistentziarako ekipamendu komunitario berri bat garatzeko aukera ematea. Nahiz eta sustapen publikokoa izan eta irabaziko interesa eduki, gizarte interes handikotzat jotzen da, horrelako zentroek eskari handia baitute udalerrian bertan nahiz Oarsoaldea eskualdean.

Aldaketa horiek, 22 AREA: Agustinak eremuaren Hirigintza Arau Partikular berrian islatuko dira. Arau horrek ordezkaturiko du C: Hirigintza Arauak dokumentuko Zazpigarren Titulua: Area eta Sektoreetako Hirigintza Arau Partikularrak ataleko araua, area eta sektoreei dagokien hirigintza erregulazioa arautzen duena.



9. 28 AREA: EGIBURU AREARI DAGOKION ALDAKETA PUNTUALA

**9.1. LURRALDEAREN EZAUGARRIAK. BIZTANLEAK.**

28 AREA: Egiburu area osatzen duen lurralde-eremua A.8 autobidearen hegoaldean dago, Oiarzun udalerraren muga ondoan eta GI-3672 errepidearen aurrez aurre.

Lurzoru hori kolonizatua izan zen joan den mendeko hirurogeiko hamarkadatik aurrera. Horren inplantazioa oso modu irregularrean egin zen, ez baitzuen inolako euskarririk une hartan indarrean zegoen hirigintza planeamenduan; ezta bide-egitura edo gutxieneko azpiegituren euskarri izan zitekeen hasierako antolamenduaren eskema ere. Horren guztiaren ondorioz, lurraldeak marjinalitate maila nabarmena erakusten du eta kalte handia eragin dio ingurumenari zein paisaiari.

Horrenbestez, hirigintza mailan gauzak, luzatu gabe argitzea eskatzen duen eremua da, horren eraberritzea lortzearen.

**Planeamendu berriak bermatu beharko du, eremuaren antolamenduaz gain, AREA horien guztien hirigintza egokiera eta integrazioa zuzentasunez egitea.**

Hamabi urtetik gora onarturik daramaten Arau Subsidiarioetan ezarri ziren eraberritze hori ahalbidetu zituzten hirigintza-estrategia bat eta hirigintza-parametro batzuk, baina denborak eta egungo errealitateak horien ezaskitasuna egiaztatu dute.

Hala ere, egungo egoera aldatu egin da, helburu hori lortzearen alde egin du, 28 Arearen mugakide den 60 Sektorea: Egiburuberri sektorea garatzeko Spirilurrek egin eta martxan dagoen sustapenaren ondorioz.

Jarduketa publiko horrek ahalbidetuko ditu irisgarritasuna hobetzea eta, bereziki, AREAn bertan azpiegitura sare-multzoa edukitzea. Horrenbestez, inbertsio baten kudeaketa bermatzeko moduan gaude, euskarri hori gabe errealitatean bideraezina zena.

AREAk dituen biztanleei dagokienean, eta ditugun datuen arabera, ondorioztatu da bertan dauden bizileku erabilerarako bi eraikinetan, bi (2) lagun baino ez daudela erroldaturik Egiburu baserrian; Belen baserrian, aldiz, ez dago inor erroldaturik.



## 9.2. HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRAREN XEDAPENAK

Lehen adierazi bezala, 2002ko abenduaren 17an, Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen behin betiko onartzea Arau Subsidiarioen 20. Aldaketa (GAO 2003.01.17), 28 Area: Egiburu, 29 Area: Egiluze eta 43 Sektorea: Zentolen eremuai dagokiena.

Geroago, otsailaren 3an, Diputatuen Kontseiluak behin betiko onespena eman zion Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari. Dokumentu horretan oso-osorik jaso dira AASSen 20. Aldaketan ezarritako xedapenak, Plan Berezi honen xede den eremuari dagozkionak.

2003ko ekainaren Alkatetza Ebazpenaren bidez eskatu zitzaion Plan Orokorraren Bulegoari ekin ziezaion 28 Area: Egiburu eremuaren Plan Berezia dokumentua egiteari.

Plan Orokorraren Bulegoak gauzatu zuen 28 Area: Egiburu eremuaren Plan Berezia, aurrerapen fasean tramitatu zena. Dena den, eremuaren azterketa sakonagoa egin ondoren, erabaki zen Area horien guztien kudeaketa eta, ondorioz, hirigintza egokiera eta integrazioa ahalbidetzeko, beharrezkoa zela aldatzea AASS zaharretan adierazitako hirigintza aprobetxamenduak, HAPOk oinordetzan hartutakoak, alegia. Hori dela eta, ulertu zen Plan Bereziaren planeamenduko irudia ez dela horretarako egokia indarrean dagoen legediaren arabera eta nahitaezkoa zela eremu horien hirigintza parametroak aurretik aldatzea, horretarako Planeamendu Orokorra aldatuta.

## 9.3. 28 AREA: EGIBURU EREMUAN DAUDEN ERAIKUNTZAK ETA GARATZEN DIREN JARDUERAK

Dokumentu honi dagokionean, eremuan dauden eraikinen izendapena ondorengo izango da::

E1 Eraikuntza unitatea.	Onex eraikina
E2 Eraikuntza unitatea.	Pebasa
E3 Eraikuntza unitatea.	Obenak eraikina
E4 Eraikuntza unitatea.	Jaizubia
E5 Eraikuntza unitatea.	Butano
E6 Eraikuntza unitatea.	Zamalbide tailerrak
E7 Eraikuntza unitatea.	Talde tailerrak
E8 Eraikuntza unitatea.	Belén baserria
E9 Eraikuntza unitatea.	Egiburu baserria



#### 9.4. IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK.

---

28 AREA: Egiburu eremurako planeamendu orokorra aldatzeko dokumentu honen bidez bilatzen diren irizpide eta helburuak ondorengoak dira:

- i. AREA mugatzea, eremuaren kontrolik ez ekiditeko.
- ii. Errealitatean dagoen egoera legezztatzea.
- iii. Ingurunearen arabera AREA urbanizatzea (60 Sektorea: Egiburuberri).
- iv. GI-3672 errepidearen trazadura hobetzea.

#### 9.5. IRTENBIDE OROKORRAK

---

##### Antolamendua.

28 Arearako proposatzen den antolamenduaren asmoa de marjinalitate egoeran dagoen lurralde bat egituratzea, 60 Sektorea: Egiburuberri sektorearen garapenak ematen dion aukera aprobetxatuz.

Agerian dago konponbide zaila duen erronka dela hori, dagoen antolaketa ezaren eta, bereziki, lurraldearen ezaugarri topografikoen ondorioz.

GI-3672 errepidea, 60 Sektorea: Egiburuberri sektoreko luzetarako bide berriarekin lotzen duen bidearen arabera dago egituraturik antolamendua. Bide egituratzaile horrek %2,27 eta %6,00 arteko maldak izango ditu. Hala ere, lurraldearen ezaugarrien ondorioz, bideak %10 inguruko aldapa du 60 Sektorearen zati batean.

Kale berria eta probintzia-errepidearen arteko lotunea biribilgune baten bidez konpondu da. Biribilgunearen ezaugarriak aurreikusitako parekoak dira Gurutzearen Alabak ikastetxearen ondoan nahiz Ikastolen inguruetan. Hau da, 16 metroko erradioa izango du barnealdean eta 22 metrokoa kanpoaldean. Biribilgune hori, Uztailaren 5eko 6/2004 Foru Arauak onartutako Gipuzkoako Foru Aldundiko 2004-2007ko aparteko planaren osagai bat da.

Konfigurazio orokor horren bidez, irisgarritasuna eta eremua ingurunearekin elkartzea konpontzeaz gain, bide-sarearen gurutzadurari ematen dio irtenbidea, etorkizuneko industrialde multzoaren irisgarritasun-aukera bat eskainiz.

##### Hirigintza aprobetxamenduak

Aurreikusitako helburuak lortzearren, proposatu da dokumentu honetan kontuan hartzea lehendik bertan dauden eta etorkizunean egongo diren eraikuntzak. Ildo horretatik eta antolamendu orekatua erdiesteko, bidezkotzat jotzen da, bestalde, pabiloi batzuk finkatzea eta beste batzuk antolamenduz kanpo uztea.

Horrez gain, AREA eraberritzeko kudeaketa erraztearren, proposatzen da industria erabilerarako eraikuntza berrien kokalekua.



Jarraian dagoen taulan agertzen dira emaitzako lurzati bakoitzari ezarri zaion erabilera eta oinarrizko hirigintza parametroak.

#### PROPOSATUTAKO HIRIGINTZA APROBETXAMENDUEN LABURPEN TAULA

Eraikina	Azalera m <sup>2</sup>	Erabilera	Perfila	Altuera m	Aprobetxamendua m <sup>2</sup> (s)
01IL	1.588	Industria	ES+BO+2GO	egungoa	2.083
02IL	830	Industria	ES+BO	16,00*	1.660
03IL	956	Industria	ES+BO	16,00*	1.136
04IL	675	Industria	ES+BO	10,00	1.350
05IL	840	Industria	BO+1GO	16,00*	920
06IL	1.250	Industria	ES+BO	16,00*	2.722
07IL	2.151	Industria	BO	10,00	787
08IL	2.986	Industria	BO	10,00	582
09IL	4.468	Industria	ES+BO+1GO+EO	egungoa	525
10IL	1.444	Bizilekua	BO+1GO+EO	egungoa	300

GUZTIRA					12.065
---------	--	--	--	--	--------

\* erdisotoaren sestra-kotatik neurtutako altuera.

#### 9.6. Eremua garatzea.

Dokumentu honek behin betiko onespena lortu eta gero idatziko da Plan Berezia, eremu osoa garatzeko. Horren ondoren idatziko da Urbanizazio Proiektua eta horretarako proposatu den epea, hasiera batean behintzat, sei (6) hilabetekoa izango da, gehienez, Plan Bereziari behin betiko onespena ematen zaionetik aurrera.

Bestalde, Birzaitze Proiektua egiteko proposatu den epea hiru (3) hilabetekoa izango da, gehienez, Urbanizazio Proiektuari behin betiko onespena ematen zaionetik aurrera.

Birzaitze Proiektuan zehaztuko da jabari eta erabilera publikoko lurzoruen lagapena; baita dagokion Arearen aprobetxamenduaren %10ekoa ere.

Aldaketa horiek, 28 AREA: Egiburu eremuaren Hirigintza Arau Partikular berrian islatuko dira. Arau horrek ordezkaturko du C: Hirigintza Arauak dokumentuko Zazpigarren Titulua: Area eta Sektoreetako Hirigintza Arau Partikularrak ataleko araua, area eta sektoreei dagokien hirigintza erregulazioa arautzen duena.



10. 39 SEKTOREA: LARTZABAL/ARRAGUA SEKTOREARI DAGOKION ALDAKETA PUNTUALA

10.1. Aurrekariak.

2003ko uztailaren 3an, Diputatuen Kontseiluak behin betiko onespena eman zion Errenteriako orduko Arau Subsidiarioen espedienteari. Horren xedapenen artean zegoen 39 Sektorea: Lartzabal-Arragua delako Lurzoru Urbanizagarriko Sektorea mugatzea.

Aipatutako dokumentu horrek Sektoreari esleitutako aprobetxamendu eraikigarria 38.842 m<sup>2</sup>(s)-koa zen, ondorengo banaketari jarriki:

Azalera eraikigarria. Bizilekua:	24.060 m <sup>2</sup> (t)
Azalera eraikigarria. Garajeak eta eranskinak:	12.092 m <sup>2</sup> (t)
Azalera eraikigarria. Merkataritza:	450 m <sup>2</sup> (t)
Azalera eraikigarria. Hirugarren Sektorea:	2.000 m <sup>2</sup> (t)
Azalera eraikigarria. Zuzkidura:	250 m <sup>2</sup> (t)

Etxebizitza kopuruari dagokionean, onartutako dokumentuak ezarritako gehieneko kopurua 204koa zen (aurretik zeuden 4ak barne) eta horietatik, %35 sustapen libreko etxebizitzak izango lirateke eta %65 BOE erregimenekoak.

Hala eta guztiz ere, orduan indarrean zeuden AASek, honela zioten 4.1.04 artikuluko 9. atalean:

*"Gehieneko etxebizitza kopurua: Hirigintza Arau Partikularrek, Erabilera Baldintza Partikularren artean, gehieneko etxebizitza kopuru zehatza ezartzen duten kasuetan, kopuru hori ehuneko hamarrean (10) areagotu ahal izango da. betiere, Udaltzaren iritziz, gizarte eta ekonomia baldintza egokiak ematen badira eta aurreikusitako hirigintza esku hartzerako erregimena Barne Erreformatarako Area (BEA) bati (hiri-lurzorua) edo Sektore bati (lurzoru urbanizagarria) badagokio. Etxebizitza kopuru hori areagotzeak ez du inoiz Eraikigarritasun, Aprobetxamendu, Bolumen eta Formaren gaineko parametroen aldaketa ekarriko. Horiek Plan Berezian edo Plan Partzialean zehaztuko dira, dagokien lurzoru motaren arabera."*

Xedapen horiek garatzearen, Sektoreen jabeek sustaturik, idatzi zen Plan Partziala, horren antolamendu zehatua jasotzen duena. Plan horren bitartez, ahalbidetu zen arestian adierazitako datuen araberrako eraikuntza programa bat eta, etxebizitza kopurua %10ean igotzeko aukera aplikatuz, aurreikusi zen, guztira, 224 etxebizitza (aurretik zeuden 4ak barne) egitea. Horietatik, 80 (76+4) etxebizitza libreak izango lirateke eta 144 BOE erregimenekoak (%65).

80 etxebizitza libre horiek Plan Partzialeko 3/3 BEZ lurzatian daude. Diputatuen Kontseiluak, 2003ko uztailaren 29an, eman zion behin betiko onespena Plan Partzial horri, dagokion tramitazioa egin eta gero.



Indarrean dagoen Erreteriako HAPOn berretsi eta finkatu dira Arau Subsidiarioek eta Plan Partzialak "Lartzabal-Aragua" izeneko 39 Sektorerako zehaztutako xedapenak. HAPOk, orokorrean, Plan Partziala garatzean etxebizitza kopurua %10ean areagotzea ahalbidetzen ez badu ere, (arestian aipatutako AASSetako 4.1.05 artikulua 9. atalak bezala), hirigintza araudi Partikularrean, *III.4 Xedapen Lotesleak izeneko atalean*, zehazturik dago Sektore horretan lehengo AASSetako 4.1.05.9 artikulua aplikatuko dela.

Horrenbestez, onartu da Sektore horren Kompentsazio Proiektua (2004/06/18), baita Urbanizazio Proiektua (2004/05/7) ere. Era berean, 2004ko uztailaren 16an, 3/3 BEZ lurzatirako eraikuntza lizentzia eman da.

## 10.2. Aldaketaren Xedea.

Etxebizitza erabilerarako, guztira, 9.660 m<sup>2</sup>(s) Plan Partzialean eta 9.639,09 m<sup>2</sup>(s) lizentziadun Proiektuan dituen 3/3 BEZ lurzati horretan, 80 etxebizitza egiteko eraikuntza lanak garatzeak, agerian utzi du 5. solairuan dauden bi etxebizitzetako bakoitzaren azalera, "estalkipea" barne, 190,88 m<sup>2</sup>(s)-koa dela. Gehiegizkoa dela argi eta garbi dagoenez, komenigarritzat jo da bi etxebizitza horiek lau etxebizitzatan banatzea. Horren ondorioz 2 etxebizitzatan areagotu behar da etxebizitza kopuru osoa eta 3/3 BEZ lurzatian kopurua 80tik 82ra aldatuko litzateke.

190,88 m<sup>2</sup>(s)-ko etxebizitza bakoitza eta 76,80 m<sup>2</sup> -ko terraza bitan banatetik sortutako 4 etxebizitza bakoitzak batez beste 95,44 m<sup>2</sup>(s)-ko azalera eta -38,4 m<sup>2</sup>-ko terraza izango ditu eta horrek ez du areagotuko Plan Partzialari esleituriko sabaia. ,

Etxebizitza kopuru osoa 2 etxebizitzatan areagotzeak dakar sektorea ere 224 etxebizitzatitik 226 aldatzea. Lehendik dauden 4 etxebizitzak kenduta ere, bete egiten da etxebizitza publikoaren erregimenari lotzeko estandarra (%65), 222 etxebizitza berrietatik, 114 (%65) BOE erregimenekoak baitira eta 78 (+ lehendik dauden 4) sustapen librekoak.

Sabai eraikigarria mantenduta, dentsitatea 2 etxebizitzatan handitzeak, neurri osagarri gisa, exijitzen du Espazio Libreen erabilerarako, gutxienez, 36 m<sup>2</sup> (18 m<sup>2</sup> x 2)-ko azalera prestatzea. Xedapen hori betetzearren, aurreikusi da Espazio Libreen Sistema Orokor gisa sailkaturiko 115 m<sup>2</sup>-ko azalera, (Plan Partzialeko) 2/1 HSEL lurzatiaren lursailetan. Lurzati horrek lehen 2.218 m<sup>2</sup> zituen eta orain 115 m<sup>2</sup>-tan txikiagotu da, aprobetxamendu bera mantendu badu ere.

Dokumentu honen xedea da indarrean dagoen HAPOn xedapenak aldatzea, etxebizitzaren kopuru osoa 2 etxebizitzan, 80tik 82ra, handitu ahal izateko 39 Sektorea: Lartzabal/Aragua sektorearen Plan Partzialeko 3/3 BEZ lurzatian eta, era berean, Espazio Libreen Sistema Orokor (ELSO) gisa sailkaturiko 115 m<sup>2</sup>-ko lurzattia mugatzea.

Aldaketa horiek, 39 Sektorea: Egiburu eremuaren Hirigintza Arau Partikular berrian islatuko dira. Arau horrek ordezkaturiko du C: Hirigintza Arauak dokumentuko Zazpigarren Titulua: Area eta Sektoreetako Hirigintza Arau Partikularrak ataleko araua, area eta sektoreei dagokien hirigintza erregulazioa arautzen duena.



---

### 10.3. Justifikazioa eta Egokitasuna.

---

Aldaketa honen egokitasuna, etxebizitza programaren neurriak merkatuaren eskakizunetara egokitzean datza. Adierazitakoaren arabera, 3/3 BEZ lurzatian lehendik dauden 2 etxebizitzetako bakoitzak (5. solairua) 190,88 m<sup>2</sup>(t)-ko azalera eta 76,80 m<sup>2</sup>-ko terraza ditu eta azalera horiek, argi eta garbi, guztiz gehiegizkoak dira.



## 11. GARAPEN PROGRAMA

14 AREA: Erdigunea eta 39 Sektorea: Lartzabal/Arragua eremuetan aurreikusitako jardueren garapena, behin HAPOren 1. Aldaketa hau onartu ondoren, zuzena izango da.

05 AREA: Basanoaga/Sorgintxulo eta 22 ARERA: Agustinak areei dagokienean, Xehetasun Azterlana idatzi behako da eta 28 AREA: Egiburu areari dagokionean, Plan Berezia idatziko da eremu osorako.



## 12. HAPOn 1. ALDAKETA OSATZEN DUTEN DOKUMENTUAK

HAPOn 1. Aldaketa osatzen duten dokumentuetako definizioek Planeamendu Orokorrari dagokion zehaztasun bera izango dute, Planeamenduko Erregelamenduko 96. artikuluan ezarritakoari egokituta.

Hain zuzen ere, HAPOn 1. Aldaketaren edukia hurrengo dokumentuetan garatu da:

A Dokumentua: Memoria

C Dokumentua: Hirigintza Arauak

Zazpigarren titulua. Area eta Sektoreetarako Arau Partikularrak:

- 05 Area: Basanoaga/Sorgintxulo.
- 07 Area: Alaberga.
- 14 Area: Erdigunea.
- 21 Area: Lartzabal.
- 22 Area: Agustinak.
- 28 Area: Egiburu.
- 39 Sektorea: Lartzabal/Arragua.

B.2. Dokumentua: Antolamendu Planoak

- O.I.01.A Hirigintza Esku Hartzeko Erregimena.
- O.II.02.A. Kalifikazio Orokorra
- O.II.02.B. Kalifikazio Orokorra

"A. Memoria" dokumentua erreferentziakoa eta justifikagarria da. "C. Hirigintza Arauak" eta "B.2. Antolamendu Planoak" dokumentuek, HAPOn 1. Aldaketa behin betiko onartu ondoren, balio arauemailea izango dute eta, horrenbestez, hirigintza jarduera orok era loteslean egokitu beharko du horien xedapenetara

\*

\* Dokumentu honetan, C: Hirigintza Arauak nahiz B.2: Antolamendu Planoak dokumentuetako informazio grafikoan, aldaketaren bat izan duten planoak baino ez dira erantsi.



### 13. HAPoren 1. ALDAKETA ONARTZEAREN ONDORIOAK

HAPoren 1. Aldaketa dokumentua gauzatzeko arrazoi bakarra, aldaketa hori eragin duen arrazoi justifikatu bera izan da eta espedientean ez dira jaso horrekin erlaziorik ez duen aldaketa edo eransketarik, ezta deskribaturik eta justifikaturik ez dagoen besterik ere.

Horrenbestez, HAPoren 1. Aldaketa, bakar-bakarrik, Zazpigarren Titulua.- Area eta Sektoreetako Hirigintza Arau Partikularrak izeneko arauari buruzkoa da eta, zehazki, ondorengo eremuei dagozkien: 05 AREA: Basanoaga/Sorgintxulo, 07 AREA: Alaberga, 14 AREA: Erdigunea, 21 AREA: Lartzabal, 22 AREA: Agustinak eta 39 Sektorea: Lartzabal/Arragua. Arau horiek, behin betiko onartu eta indarrean jarri ondoren, indargabetu egingo dira eta espediente honetan jasotakoek ordezkaturiko dituzte.

Erreteria, 2005eko iraila

Gorka Arregi Gaztañaga.



---

## C DOKUMENTUA. HIRIGINTZA ARAUAK

---



---

## Fitxa berriak erantsi.